

SANTA TERESA LARRA'N

Teresa deunak, bere liburuetatik atera geinkenez, maite zituan euskaldunak. Arentzat, osterat, naiz arabar, napartar edo-ta gipuzkoar izan, danak ziran «bizkaitar», garai atan euskaldunai orrela eritxen eta.

Teresa'k ainbat euskal odoleko izan ebezan autorle, laguntzaille ta kontseju-emoille. Guzti ori, baiña, lege ordez maitasun iturri dogu, eta alan be geiago Avila'ko Teresa deuna lango emakume zabal jator batentzat. Lekaimetxeak jasoten su ta ke ziarduala Jainkoak eroan euskun, Euskaleritik ur, Burgos-koa jasoten ebillela eroan be. Ostentzean emen genduan komentugintzan. Iruña'korako ta Orduña'korako bai eukazan eskabideak. Jaunak, alan be, Burgos'ko fundaziñoa amaitu ta Avila'rantz joiala, bidean deia arturik Alba de Tormes'era okertu ta andik eroan euskun bere zorrionera. Ibiltari on, azkenik be onela esan eutson Jaunari: «Goazen, Jauna, goazen!»

Euskaldunak, euren aldetik, zelako erantzuna emon ete eutsoen Teresa'ri? Ez gaitezana lotsatu. Ao betean esan geinkenez, etziran izan esker txarrekoak. Bizkaiko batzarrak eta bizkaitar jentea etzan atzera geratu, iñoiz be, ez maitasunean, ez on-eraspenean. Elizea, Teresa ilda laster, emakume arrigarria altaretara jasoteko asmotan asi zanean, «Zorriontsu» naiz «Santa» izenez koroitzeke lenengo oinkadak emo-

ten asi zanean, bizkaitarrak lenengo maillan ibilli garai
be, ur-ur ibilli zirala autortu bearrean gagoz. Garai
guk ez geunkan emen Gotzaigorik. Kalahorra ta Burgo
koak ziran emen eliz-agintea ebenak. Bietatik, Kalahorra
Burgos'tik, karta sendo zabalak idatzi zituen Erroma'ra
Santuak Teresa goretsi egiala eskatuaz.

Gernika'ko Batzarrak be, Bizkaia'ren izenean, beste a
beste egin eban. Baita beste maitasun egintza onekin e
zabaltasun garaia erakutsi be: 1676'garren urtean, Alba'n, Te
resa Deunaren gorpu aurrean lanparargi bat gau ta egun i
tuta euki egien, 500 dukat bialdu zituen Gernika'ko Batza
rrak. Bilbo'ko Udaletxeak be, bere aldetik, aundikero ospatu
eban Teresa'ren beatifikaziño jaia, 1617-10-3'an, erri osual
parte arturik. Bardin egin zan beste toki askotan be.

Nok zabaldu ete eban, gero ta geiago, Teresa Deunaga
nako eraspina gure artean? 1588'an, besteak beste, jesuita
anai bat, Martin Gastiategi, Salamanka'n bizi zana, bere jaio
terri Mañari'ra etorri zan Teresa Amaren erliki batzukar.
emakume arek erabillitako abitu ta barruko tunika zapitua
batzuk ziran erlikiok, baita aren besoari ikuturiko tele
-zatitxo batzuk be. Mañari'n ez-ezik, Durango inguruetan be
zarata aundia atera eban onek; mundu guztiak nai eban
erlikiok ikutu ta olako zerbait beretzat euki, batez be Maria
Galarraga'k, Durango'ko alabeak. Salamanka'ra biurtu zan
dalako anaia, baiña Bizkaiko toki askotatik eskatu eutsen.
mesedez, bialtzeko Teresa'ren gorpuari edo-ta ak erabillitako
zerbaiti ikuturiko zapi naiz beste edozer gauza. Orrela egin
eban mañaritar anai arek. Jazoera oneik olaxe datoz Aita
Ribera'k, Teresa Amaren bizi-zeatasunak lenengoz idatzi z
tuenaren liburuan.

Ortixek asi zan naitaez Teresa'ganako deboziñoa, apurka
apurka Bizkai guztira zabaldu zana. Ezin ukatua da: aspaldit
ditik datorkigu eraspina eta deboziño au. Durango, Arratia
ta Gernika aldetan batez be, ondo errotuta dagoana. Beste
aldetik, azken iru gizaldiotan lan aundia egin izan dabe karm
meldarrak Euskalerrian, Markiña, Larrea ta Lazkau'ko ko
mentuetatik ez gitxi; arima-lan orrek eztau gitxi esan naiko
deboziño ori zabaltzerakoan. 1641'tik dagoz karmeldarrak
Lazkau'n, 1691'tik Markiña'n eta 1713'tik Larrea'n.

Larreko komentuari gagokiozala, karmeldar bizitoki au
Teresa Amaren gomutaz eta goi-graziazko jazoera jakingarriz
beterik daukagula esan bear da. Komentu onek 1712'an euki
eban bere asiera, naiz-ta urrengo urtean jarri karmeldarrak
berton bizi izaten. Orduantxe il zan Juan Larrea, eliz-aurreko
lanregi ederraren jaubea; aren emazte Teresa Mudarra'k bar
lindu zituen onakoetan, fundaziño barrietan, errez sortu oi
liran istillu ta eragozpenak. Komentu au, ain zuzen be, Teresa
Deunaren omenez jasotakoa da. Olan itxi eban Teresa Muda
rra'k bere testamentuan, eta emakume onen guraria egiñik.
Teresa Deunaren irudi eder jarri zan sarrera nausiko ate bu
rtuan, Patroiaren armarrria bere oiñetan ebala.

Gure eleizetan, oraintsu, arte, altara ta santu asko nai iza
ren zan. Irudiz be ondo orniduta egon eitezala bazterrak.
Bakotxaren garrari su emonik, eder yakon ari ta oni gogokoen
ban santuaren irudia agirian jarrea. Ortik autortu daikegu,
Teresa deunak maitale ugari izan dabezala gizaldietan zear.
Larrako eleizan eta komentuan, bada, naiko irudi izan dauz
Teresa'k. Oraintsu arte, ia mende batean, Aztetxe edo nobi
lindu izan da Larra'ko komentua, gaur gogartetxe biurtuta
daukaguna; au da, karmeldar izan nai eben gazteak ementxe
egiten eben euren lenengo urtea, karmeldar oitura, lege, jo
kabide, karisma ta batez be Teresa ta Juan Gurutzekoaren
dotriña artu ta ausnartzen igaro oi eben urtea. Gure gazteen
otoiztegi, gela, bee-barru ta gaiñerakoak Santa Teresa'ren iru
diz egozan, eta gaur be orrelaxe dagoz. Ezta arritzekoa.

Eleizan, barriz, ez dira iñoiz palta izan Teresa'ren irudi
ederrak. Asko ezagutu izan dauz Karmengo elizak, gaur parro
ki dan onek. Toki batetik bestera sarri aldatuak izanagaitik,
beti euki izan dauz Teresa'k leku begiko ta txatxanak, eta
eurotan irudi ederrak, aldiz urren iru edo lau, dotoreena gaur
daukaguna izanda be. Gaur itxura bikaiñean daukaguna Fran
zisko Fonteta Pons'ek, zur-irudigille onak landua da; artista
onek, naiz arrian naiz zurean irudi apain askotxo daukaz
Euskalerrian. Urretxu'ko Iparragirrena'rena, adibidez, berak
egiña da 1890'an. Larrakoa ez-ezik, emen inguruko beste ba
tzuk be, Gasteiz'koa, Villafranka'koa ta karmeldar lekaimen
komentukoa Markiña'n, berak landuak dira. Guztiok, gaiñera,
lenengo gizaldiaren azkenerantza egiñak.

Larrako au ederra benetan, eliz-gurutzean eskumatik aurreratu da, klaustrotik eleizara sarreratik aurrez-aurrera. Edertu diko irudia da. Arpegia zabala dau, guztiz leun eta fiñ egina. Bekoki lau argia, sur luzanga, matrail gorri beteak, okotz txiki biribilla. Abitu arrea, goitik behera datorkio, tolestura ta izur biurkoietan, oiñen puntak agirian izten dautsozala. Kapa zuriak estaltzen dautso, guztiz eskertsu, ia behera. Luma bat dauko eskumako eskuan, atzamar artean polito. Ezkerrekoaz zabalik daukon liburu bati eusten dautso polito. Eskuman, belarri ondoan, uso bat dabilkio egaz, zerbait esan gurarik. Bean, azpiko oin-ol gainean, Irakasle (Doktor) ezaugarri lez, txano bat dauko maixu-mortxil itxuran. Erromak Eliz-irakasle iragarri aurretik be, ezaugarri ori ipiñi oi eutsen margolariak eta irudigilleak.

Beste irudi batzuk be, eta pinturak, ba-dira oindiño. Eleizetan, esaterako, erdiko oskol edo borobil-erdian lau lauki margoztu —Santa Teresarena, Juan Gurutzkoarena, Jose Deunarena ta Simon Stok'eka Andra Mariaren oiñetan— agiri dira kupularen azpiko lau ertzetan noski. Nobiziaduko kapillan be ba-zan, azkenengo barrizatzeak egin arte, ondo samar eginik irudia mordoa: erdikoa, naiko nabarmentzen zana, Karmengo Amarena zan, Ume Jesus besoetan eukala; ezker-aldean, zutik, San Jose agertzen zan; Andra Mariaren oiñetan, eskumatik Santa Teresa ta ezkerretik Gurutzeko Juan Deuna egin zan. Ez dira aaztutakoak komentu ontan egon ziran, eta gaur be batzuk beintzat dagozan, erliki, eskutitz eta abar. Onako asko aurkitzen ziran Bizkaiko beste karmeldar komentuetan be, 1839'an prailleak euren bizitokietatik uxatuak izan ziran arte.

Irudi ta tailiu-lan oneikaz bat eta bardin joian emen bazterretako jentearen Teresaganako deboziño ta jaiera be. Aspaldeko urteetatik datorrena dozu erriak Avila'ko moja jakintsuari dautson eraspina. Ni neu antxiñatik, 1921'tik, emen Larran bizi izan naz geien bat, eta duda barik esan neinko aundia dala Euskalerrriak Teresa'ri dautson maitasuna, garbia, sutua ta iraunkorra. Andik eta emendik ez da jente gitxi bertoratu. Eta emengoak Avila ta Alba de Tormes'era? Baita, ta ez gitxi. Teresa'k doai ta mesedez bete ditu Zornotza ta

struetakoak, baita oneik aren jaioterria ta iltegia ikusi ta erakutsi be.

Larrea, bederatzi-urren bikaiñez gertatu izan da beti Teresa Deunaren egunerako, Karmengo Amaren egunerako lez bertatik. Zornotza ezta nagi ibilli Teresa'ri barne-leia bizia ginduraz; bertoko Irugarren Ordenakoak batez be noznai ginduraz dira urte barruko omen-egunak eta bere eguneko alik egokien gertau ta ospatzen. Bere egunean nik gazte-gazteetatik ezagutu dok jentetza aundia lau aldeetatik —Durango, Arrati, Gernika ta Larrabetzu— ona etorten. Karmengo eleizan au txikiegia izanik, meza nagusia sarri eratu ber izan dogu eliz-aurreko zelai berdean. Jente asko janari ta guzti etorri oi zanez, bertan emoten eben eguna, arratsaldea elizkizuna itzaldi ta Prozesiño ta guzti amaitu ondoren, zornotza beti, euren etxeetarako bidea arturik. Urrilleko 15, Teresa Deunaren jai, ospe aunditan egin izan da urteoro; Durango, gainera, 1815'tik, Gure Jauna agiria euki oi zan egun guttarian.

Aurten lareungarrena legez, 1882'an irureungarren urteburua ospatu eben jaietan jentetza aundiak parte arturik. Urrilleko diño orduko kronikak: «Gertatzeko bederatzi-urrena ospatu zan, eta urriaren 15'garren goizean Meza nagusia abesbatza zan, oso aundikiro, Gure Jauna agirian zala. Arratsaldean, berperak esanda gero, elizkizuna prozesiño ta guzti. Arratsaldeko, eguneko ta urte barruko elizkizunak, laguntalde aundiak esku artuta amaitu ziran. Orrez gainera, jenteari iragarri yakon Irurren ospatsua egingo zala, Teresa Deunaren eriotzatiko irugarren eun urteburua gogora ekarteko. Urteburu orduantxe bertan, urriaren 22, 23 ta 24'garren egunetan egin zan Meza. Etzan edozelakoa izan irurren egitaraua. Goiz-erdian Meza abestua eta Jauna agirian arrastiko elizkizunera arte. Larrabetzuko, Gernikako, Lemoako ta Durangoko izlaririk onek egin eben berba. Eta besteak beste, Krutz Otxoa Jaunak, Durango'ko parrokoak, bere izkera errez, jori ta oparotsuz errezuleak oro liluratu zituan berari entzuten adi-adi ordu ta erdian eukirik». Ikasbide ez exkasa —nork ukatu?— gaur atzamar miñutugaz aspertzen yakuzan eliztar zabarrentzat.

Eta aurten? «Ez yat oindiño joan atzoko biotz-dardara

gozoa», ziraustan adiskide zaar batek. Zer ba? Eder-eder
izan zan, egiaz, atzoko jaia, Teresa Deunaren Laugarren
eriotz eun urteburua zala-ta, urte santua edegiaz, Larra-
karmeldar komentuan ospatu zan jaia. Santa Teresaren ego-
na zan, izan be. Asteguna izanik be, jentea esan ziran mezular-
zeko zazpi t'erdietatik asi ta aurrera esan ziran nagusi abestua
Amar t'erdietan eta amaika t'erdietan meza nagusi abestua
izan ziran. Eleizea ondo bete zan jentez, Durango, Abadiño,
Axpe, Arrazola, Berriz, Maume, Ibarruri, Gorozika, Muxika,
Gernika, Larrabetzu, Galdako, Usansolo, Bedia, Lemou eta
Arrati'ko erritxoetatik etorriko jentez.

Arratsaldeko zazpi t'erdietan emon yakon urte santuari
asiara, meza nagusi eder bategaz. Ordu-orduan emeretzi eliz-
-gizon urten giñan altarara, Bilbo'ko Gotzaiña, Larrea-tar
Koldobika Mari jauna, Erdiko zalarik. Bete-beterik egoan
eleizea; loraz ta argiz dotore, abeslariak koruan. Kantu ta
irakurgai ostean, Gotzaiñak egin euskun itzaldia, euskera
eta erderaz, Santa Teresa'ren jaia ta irudia ederto adierazo
ta goratuz: Teresa'k, Avila'n jaio zan arren, maite zituan
euskaldunak, baita euskaldunak Teresa be. Zornotza'ko Ko-
ralak, Abes-Batzak, Sema'ren semeak organuz lagunduz Aita
Eliseo'k zuzenduta, guztiz ondo abestu eban Perosi'ren «Il-
Missa Pontificalis»; baita, azkenean, erriak erlikiari mut-
-emon bitartean, gertakizun ontarako berariz egiñiko ere-
-serkia be.

Aurretik, illaren 6'an asita, bederatzi-urrena egin zan goiz
eta arratsalde meza ta itzaldiz ornidua, Teresa'ren omenez
jakiña. Esan dogunez, Zornotza beti izan da Teresa zale
eta, aurten urte santua jaituko dogulako, oindiño geiago
erakutsiko dausku benetako zaletasun ori. Urte barruan, ille-
ro, zerbait egingo dogu Larra'ko komentuan, Teresa'ren gor-
-tzarrez, eta egun orreitan be, ziur gagoz, izango da jentea
barru-bizitzan egarri dan jentea nunbait.

Emakume aundia zan Teresa, ez bere garaian bakarrik,
baita gaur-egunean be. Zabal dabilkigu oraintxe be istoria zear.
Ikasbide bikaiña guztiontzat emakume arrigarri au. Errez da
aundi gareala esatea. Baiña egiteak bear ditugu esan ori
egia dan ala ez jakiteko. Teresa'ren egintza aundiak or dau-

guzuz argi be argi; or dagoz, Gotzain jaunak itzaldian gogo-
-tatu euskunez, Teresa'k bere bizitzan jaso zituan komentua,
eta arrezkero jasotakoak, ainbeste karmeldar praille ta mo-
-nastak. Komentu orreitan egiten dan bizimodua, orain lareun
-te eta geiago Teresa'k bere komentueten ipiñitako bizi-
-modua dogu, ez geiago ez gitxiago.

Or daukaguz bere liburuak: *Bizitza, Onbidea, Egoitzak,*
Lekaitxeak, Eskutitzak, Olerkiak, Biotz-oiuak eta abar.
Liburuok barne daroen sua ezarten dautse irakurleai. Ez dira
-gizki fedean epel edo ainbarik ibilliak, oneik irakurriz Jain-
-koaguna biurtu diranak. Munduko gizaseme aundi guztiak,
-dazteak batez be, goratu izan dabe Teresa Deuna. Geure
-barrua dan legez azaltzekak, izan be, biotza irabazi oi dausku.

Xanti